

Otsailaren 1eko 1/2005 FORU ARAUA, Gipuzkoako Jokoaren gaineko Zergari buruzkoa.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

1. artikulua. Izaera eta xedea.....	3
2. artikulua. Aplikazio eremua eta ordainarazteko eskumena.....	4
3. artikulua. Zerga-gaia.....	5
4. artikulua. Salbuespenak.....	5
5. artikulua. Subjektu pasiboak.....	6
6. artikulua. Erantzuleak.....	6
7. artikulua. Oinarri ezargarria.....	6
8. artikulua. Zerga tasa orokorra.....	7
8 bis artikulua. Bingo jokoari aplikatzeko zerga tasak.....	7
9. artikulua. Kasino jokoetarako zerga tasa.....	7
10. artikulua. Apustu jokoetarako zerga tasa.....	8
11. artikulua. Boleto jokoetarako zerga tasa.....	8
12. artikulua. Makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoetarako kuota finkoak.....	8
13. artikulua. Errifa eta tonbola jokoetarako zerga tasa.....	9
14. artikulua. Ausazko konbinazioen bidezko jokoetarako zerga tasa.....	9
15. artikulua. Zerga sortzea.....	9
16. artikulua. Betebehar formalak eta zergaren ordainketa.....	9
17. artikulua. Zigorrak.....	10
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	10
AMAIERAKO XEDAPENAK.....	10
Lehena. Foru Arauaren arauzko garapena.....	10
Bigarrena. Indarrean jartzea.....	10

HITZAURREA

Ekonomia Itunak 36. artikuluan jasotzen duenez, jokoaren gaineko zergak itunduak dira eta araudi autonomoa aplikatu behar zaie, baimena Euskal Autonomia Erkidegoan eman behar zaien kasuetan. Dena dela, aipatu xedapenak izaera hori ñabarmendu eta aurrerago adierazten du Estatuak unean-unean ezarrita duen arautegia aplikatuko dela zerga-gaiari eta subjektu pasiboari dagokienez.

Zerga horiek ordainarazteko eskumenari dagokionez, Ekonomia Itunak 37. artikuluan lurraldea dela-eta eskumena duen foru aldundiari ematen dio, Euskal Autonomia Erkidegoan baimena eman edo zerga-gaia gauzatu behar denean edo gauzatzen denean, joko jardueraren arabera, hurrenez hurren.

Foru erakundeek gai hori arautzeko beharrari erantzuten dio foru arau honek, zeren eta orain arte bakarrik aspektu jakin batzuk baitzeuden araututa, hala nola Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren zazpigarren xedapen gehigarrian jasotako aspektua.

Foru arau honetan Jokoaren gaineko Zerga erregulatzen da, kontuan hartuz hainbat alderdi, besteak beste ondoko hauek:

a) Lurralde historikoko erakundeek araugintza eta ordainarazpenaren eskumen esparrua finkatzeko beharra. Alde batetik, Ekonomia Itunean jasotakoa aipatu da eta, bestetik, Zergak Koordinatzeko Organoan Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan aipatu eskumenak esleitzeko harmonizatutako arauak jaso dira.

b) Euskal Autonomia Erkidegoaren barruko jokoaren funtsezko araudia.

Aurrerago adierazi denaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregulazioa erkidego horri dagokio oso-osorik, Euskal Autonomia Estatuak 10.35 artikuluan jasotakoaren arabera, salbu Kirol eta Ongintzako Elkarrekiko Apustuak direnean.

Eskumen oso hori garatzean, Euskal Autonomia Erkidegoak jokoari buruzko hainbat xedapen eman ditu, besteak beste Euskal Autonomia Erkidegoko Jokoari buruzko azaroaren 8ko 4/1991 Legea.

c) Jokoari buruzko zerga-erregulazioaren mugak eta aurrekariak, Ekonomia Itunari eta erregimen komuneko araudiari dagokienez.

Lehenago adierazi bezala, Jokoaren gaineko Zergaren arauetan erregimen komuneko erregulazio bera aplikatu behar da, oinarri ezargarriari eta subjektu pasiboari dagokienez.

d) Jokoari buruzko tributazioari buruz kontuan hartzeko jurisprudentzia, bereziki aintzat hartuta Auzitegi Konstituzionalak 1994ko azaroaren 10ean emandako sententzia eta Auzitegi Gorenak 1998ko abenduaren 28an emandakoa. Izan ere, sententzia horietan zalantzarik gabe zergatzat hartzen du 16/1977 Errege Lege-Dekretuak araututako Zorte, Enbido eta Zorizko Jokoen gaineko Tasa.

Behin gogoeta horiek eginda, foru arau honen edukia aztertuko da. Guztira 17 artikulua, xedapen indargabetzaile bat eta amaierako bi xedapen jasotzen dira.

1. artikuluan hemen araututako zergari zeharkakotasuna aitortzen zaio, eta haren xedea zehazten du.

2. artikuluan, araudiaren aplikazio eremua eta ordainarazte eskumena finkatu dira. Izan ere, biak behar-beharrezkoak dira zerga behar bezala kudeatzeko.

3. artikuluan, aldiz, zerga-gaia arautu da: Zerga-gai hori barru-barrutik atxikita dago, lehenago adierazi bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan sortutako jokoaren arloko funtsezko erregulazioari, ahaztu gabe aurrerapen teknologikoek arlo horretan duten eragina.

4. artikuluan jasotzen denez, salbuespenak, gehienak subjektiboak izanik, aplikaziozko zat hartzen dira hemen araututako zergaren kasuan, errifei, tonbolei, apustuei eta ausazko konbinazioei buruzkoak dira bakar-bakarrik.

5. artikuluan zergaren subjektu pasiboak zehazten dira. Zergaren erantzule solidarioei buruzko 6. artikuluan jasotako erregulazioa subjektu pasiboaren zehaztapenarekin lotuta dago: Jokoa egiten den lokal, instalazio edo esparruetako enpresariak izango dute erantzukizuna.

7. artikuluan, ordea, oinarri ezargarria zehazteko arauak jaso dira. Bat apartatua arau orokorra finkatu da eta bi apartatua, aldiz, arau partikularrak jaso dira joko motaren arabera; oinarri hori behar bezala zehazteko behar diren ñabardurak egin dira.

8.etik 14.era bitarteko artikuluetan, joko motaren arabera aplikaziozkoak diren zerga ereduak arautu dira. Alde batetik, tasa orokor bat finkatu da berariazko tasarik ez duten jokoetarako eta, bestetik, kuota finkoak ezarri dira makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetarako, eragotzi gabe joko mota batzuetarako zerga tasa finkoak eta beste joko mota batzuetarako pixkanakako zerga tasak bereiztea.

Sortzapena 15. artikuluan arautu da. Kasu honetan ere, arau orokorra finkatu da sortzapenaren unea zehazteko eta arau partikularra, aldiz, makinaren edo aparatu automatikoen bidezko jokoetarako.

16. artikuluan betebeharrak formalak eta zerga ordaintzeko betebeharrak jaso dira. Kasu honetan, arauzko garapena aipatu da betebeharrerik dagokienez, eragotzi gabe artikuluan jasotako funtsezko betebeharrak formal batzuk ezartzea.

17. artikuluan erabat jotzen da Zergen Foru Arau Orokorrera, urraketa eta zigorreik dagokienez. Beraz, azken horretan jasotako arau orokorrak aplikatuko dira jokoaren esparruan.

Azkenik, amaierako xedapenetan adierazten da foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo egunean indarrean jarriko dela. Era berean, arlo honetan Gipuzkoako zerga esparruan emandako xedapenak indarrak gabe geratuko dira ordur geroztik.

1. artikulua. Izaera eta xedea.

Jokoaren gaineko Zerga zeharkako zerga da, eta joko jarduerak zergapetzen ditu foru arau honek jasotakoaren arabera.

2. artikulua. Aplikazio eremua eta ordainarazteko eskumena.

Bat. Foru arau hau Euskal Autonomia Erkidegoan baimendu beharreko joko jarduerari aplikatuko zaie, jokia Gipuzkoan gauzatzen denean.

Bi. Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainaraziko du Jokoaren gaineko Zerga, ondoko kasuetan:

— Errifa, tonbola, apustu eta ausazko konbinazioen bidezko jokoetan, baimena Euskal Autonomia Erkidegoan eman eta jokia Gipuzkoan gauzatzen denean.

— Kasino eta bingo jokoetan, makina edo aparatu automatikoen eta boletoen bidezko jokoetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Joko Katalogoan sartuta dagoen beste edozein jokotan, zerga-gaia Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu eta joko jarduerak Gipuzkoan gauzatzen direnean.

Hiru. Kasu hauetan ulertuko da jokia Gipuzkoan gauzatzen dela:

1. Oro har, kopuruak Gipuzkoan jokatzen direnean.

2. Partikularki:

a) Kasino jokoetan, jokia gauzatzen den lokala edo establezimendua Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

b) Bingo jokoan, jokia gauzatzen den aretoa, lokala edo establezimendua Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

c) Apustu jokoan:

— Jokia apustu lokaletan edo bestelako lokal edo establezimendu lokaletan egiten bada, horiek Gipuzkoan kokatuta daudenean.

— Bestela gertatzen denean, apustuak ustatzen dituen pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak zerga helbidea Gipuzkoan duenean.

d) Boleto jokoan, boletoak saltzen dituzten establezimenduak Gipuzkoan kokatuta daudenean.

f) Makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoan, makina edo aparatua Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

f) Errifa eta tonbola jokoan, boletoak edo txartelak Gipuzkoan eskaintzen direnean edo, bestela, tonbola antolatzen den azoka, feria edo festa Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

g) Ausazko konbinazioen bidezko jokoan, sustapenaren lurralde esparrua Gipuzkoa denean.

Ausazko konbinazioen bidezko jokoan, sustapenaren lurralde esparruak Gipuzkoa gainditzen duenean:

— Entitate sustatzaileak zerga helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan badu, hori Gipuzkoan dagoenean.

— Baldin eta entitate sustatzaileak ez badu Euskal Autonomia Erkidegoan zerga helbidea, jokoaren erdia edo herena Gipuzkoan antolatzen dela ulertuko da, segun eta eremu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko bi edo hiru lurralde hartzen dituen.

3. artikulua. Zerga-gaia.¹

Jokoaren gaineko Zergaren zerga-gaia izango da ondoko joko hauek antolatzea edo egitea, edozein izanik horiek egiteko eskuzko bitartekoa, teknikoa, telematikoa edo interaktiboa:

—Kasino jokoak.

—Bingoa, bingo elektronikoaren modalitatea barne.

—Apustuak.

—Boletoak.

—Joko makinak.

—Errifak.

—Tonbolak.

—Ausazko konbinazioak.

—Euskal Autonomia Erkidegoko Joko Katalogoan sartuta dagoen beste edozein joko.

4. artikulua. Salbuespenak.

Errifak, tonbolak, apustuak eta ausazko konbinazioak egitea Jokoaren gaineko Zergatik salbuetsita egongo da, honako kasuak gertatzen direnean:

a) Gutxienez beharkizun hauek betetzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateek antolatutakoak:

— Interes orokorreko xedeak edukitzea, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak 4. artikuluan jasotako eran.

— Horien bitartez lortutako zenbateko osoa aipatu helburuetan erabiltzea.

— Sarien zenbateko osoa 6.000 eurotik beherakoa izatea.

¹ Artikulu hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUaren 4. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko abuztuaren 15etik aurrera ditu ondorioak.

b) Gipuzkoako Gelditu eta Lagundu errepide laguntzarako elkarteak (DYA) antolatutakoak.

c) Titulartasuna Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari gordea edo esleitura dutenak.

d) Egunka antolatutako tonbolak, hain zuzen azoka, feria edo festak antolatzen direnean.

5. artikulua. Subjektu pasiboak.

Bat. Baimen administratiboa eman zaien pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak izango dira Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak.

Bi. Baimen administratiborik ez badago, besteak beste jokoetan parte hartu edo horiek antolatzen dituzten pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak izango dira Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboak.

6. artikulua. Erantzuleak.

Jokoaren gaineko Zergaren erantzule solidarioak izango dira jokoen lokal, instalazio edo aretoetan jokoaz besteko jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisiko edo juridikoak edo entitateak.

7. artikulua. Oinarri ezargarria.

Bat. Izaera orokorrean, ondorengo apartatuan joko modalitate bakoitzerako jasotakoa eragotzi gabe, jokalariek jokoetan parte hartzean erabiltzen dituzten kopuruen zenbateko osoa izango da Jokoaren gaineko Zergaren oinarri ezargarria.

Bi. Partikularki, apartatu honetan zerrendatutako joko jardueretan Jokoaren gaineko Zergaren oinarri ezargarria ondoko hau izango da:

a) Kasinoko jokoetan, kasinoetan jokatik lortzen diren sarrera gordinak izango dira oinarri ezargarria. Ondorio horietarako, sarrera gordintzat hartuko da jokatik lortutako sarreraren zenbateko osoaren eta jokalariei irabazi edo sariak direla-eta ordaindutako kopuruen arteko diferentzia. Sarrera horietan ez da sartuko joko aretoetan sartzeagatik kobratzen den kopurua.

b)² Bingo jokoa, oinarri ezargarria izango da jokalariek kartoiak erosteagatik ordaindu duten kopuru osoa, inolako murrizpenik egin gabe. Bingo elektronikoko jokoa modalitatean, oinarri ezargarria izango da jokatutako zenbatekoaren eta sarietara zuzendutako zenbatekoaren arteko diferentzia, jokoa egiten den areto edo lokal bakoitzari egotzi dakiokeena.

² Letra hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 4. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko abuztuaren 15etik aurrera ditu ondorioak.

c) Apustu jokoan, oinarri ezargarria izango da apustuan jarritako kopuruen batura osoaren eta jokoan parte hartzen dutenek lortutako sarien zenbatekoaren arteko diferentzia.

Dena den, pilota jardunaldiak, traineruen estropadak edo bestelako herri kirol edo lehiaketako jarduerak antolatzean egiten diren apustueta, oinarri ezargarria urtearen barruan antolatutako jardunaldien kopurua izango da, baldin eta apustuak gauzatzen badira bakar-bakarrik jarduera horiek egiten diren lekuan eta kanpoko apustuen bidez osatzen ez badira.

d) Boleto jokoan, oinarri ezargarria izango da jokalariek boletoak erosteagatik ordaindu duten kopuru osoa, inolako kenkaririk egin gabe. Boleto joko baimen administratiborik gabe antolatuz gero, oinarri ezargarritzat hartuko da egindako boletoen prezioaren batura osoa.

e) Makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoan, oinarri ezargarria izango da ustiatzen diren «B» edo «C» mota bakoitzeko makinen edo aparatu automatikoen kopurua.

f) Errifa eta tonbola jokoan, oinarri ezargarria izango da eskainitako txartel edo boletoen batura osoa.

g) Ausazko konbinazioen bidezko jokoan, sarien balioa izango da oinarri ezargarria. Ondorio horietarako, sarien baliotzat hartuko da haien merkatu balioa, eta bertan sartuko da saria emateko behar diren gastu guztien batura.

8. artikulua. Zerga tasa orokorra.

Ondorengo artikuluetan joko modalitate bakoitzerako jasotakoa eragotzi gabe, zerga tasa orokorra %20koa izango da.

8 bis artikulua. Bingo jokoari aplikatzeko zerga tasak.³

Bingo jokoaren zerga tasa 100eko 18,4 izango da. Bingo elektronikoko jokoaren modalitatetan, zerga tasa 100eko 25 izango da.

9. artikulua. Kasino jokoetarako zerga tasa.⁴

Hona hemen kasino jokoetarako urteko tarifa:

Oinarri ezargarriaren zatia

*Aplikatu den
tasa*

³ Artikulu hau uztailaren 27ko 3/2012 FORU DEKRETU-ARAUAREN 4. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretu-arauak Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen ditu. Foru dekretu araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jartzen da indarrean (2012/08/13ko GAO) eta aldaketa honek 2012. urteko abuztuaren 15etik aurrera ditu ondorioak.

⁴ Artikulu hau abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUAREN 5. artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatutako Foru Arauak zenbait zerga aldaketa onartzen ditu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean (2010-12-28ko GAO). Eransketak 2011-1-1etik aurrera ditu ondorioak.

	(portzentajea)
0 eta 2.000.000 euro bitartean	20
2.000.000,01 eurotik aurrera	33

Tarifan jasotako tarteak independenteak dira, hau da, oinarri ezargarriaren zati bakoitzak hurrenez hurren tarte bakoitzerako finkatutako tasaren arabera tributatuko du.

10. artikulua. Apustu jokoetarako zerga tasa.

Bat. Apustu jokoaren zerga tasa %10ekoa izango da, ondorengo apartatuan jasotakoa eragotzi gabe:

Bi. Apartatu honetan zerrendatutako kirol edo lehiaketako jardueretan oinarritutako barne apustuetan, berariazko kuota hauek aplikatuko dira:

a) Pilota jardunaldiak eta traineruen estropadak antolatzean egiten diren apustuetan: Jardunaldi bakoitzeko 100 euroko kuota finkoan zergapetuko dira, urtean 50 jardunaldi baino gutxiago egiten direnean, edo 150 eurotan, aldiz, urtean 50 jardunaldi edo gehiago egiten direnean.

b) Herri kirol edo lehiaketako beste jarduera batzuk (hala nola, idi demak, aizkolariak, segalariak edo harri-jasotzaileak) antolatzean egiten diren apustuetan: Jardunaldi bakoitzeko 20 euroko kuota finkoan zergapetuko dira, urtean 50etik beherako jardunaldiak egiten direnean, edo 30 eurotan, aldiz, 50 jardunaldi edo gehiago egiten direnean.

11. artikulua. Boleto jokoetarako zerga tasa.

Boleto jokoaren zerga tasa %15ekoa izango da.

12. artikulua. Makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoetarako kuota finkoak.

Bat. Makinen edo aparatu automatikoen bidezko zorizko jokoetan, kuota finkoa exijituko da makina edo aparatu bakoitzeko.

Bi. Hona hemen kuota finkoak:

A) «B» motako makinak edo jolas makina saridunak:

Urteko kuota: 2.750 euro.

— «B» motako makinak edo aparatuak direnean, ondoko kuotak ezarriko dira, baldin eta aldi berean bi edo jokalaria gehiagok parte hartu badezakete eta haietako bakoitzaren jokoak beste jokalarien jokoaz bestekoa bada:

Bi jokalarirentzako makinak edo aparatuak: 5.500 euro.

Hiru jokalaria edo gehiagorentzako makinak edo aparatuak: 5.500 euro gehi kopuru horren %15 gehiago bitik gorako jokalaria bakoitzeko.

B) «C» motako makinak edo zorizko makinak:

— Urteko kuota: 4.025 euro.

— «C» motako makinak edo aparatuak direnean, ondoko kuotak ezarriko dira, baldin eta aldi berean bi edo jokalaria gehiagok parte hartu badezakete eta haietako bakoitzaren jokoa beste jokalarien jokoaz bestekoa bada:

Bi jokalarirentzako makinak edo aparatuak: 8.050 euro.

Hiru jokalaria edo gehiagorentzako makinak edo aparatuak: 8.050 euro gehi kopuru horren %15 gehiago bitik gorako jokalaria bakoitzeko.

Hiru. Baimena edo ustiapen baimena lortzen den urtean edo hori eten, ezeztatu edo iraungitzen den urtean, kuota hiruhilabete naturaletan hainbanatuko da baimen egunetik aurrera, baja eman, eten edo ezeztatu den egunera arte.

13. artikulua. Errifa eta tonbola jokoetarako zerga tasa.

Errifa eta tonbola jokoen zerga tasa %15ekoa izango da, izaera orokorrean.

14. artikulua. Ausazko konbinazioen bidezko jokoetarako zerga tasa.

Ausazko konbinazioen bidezko jokoaren zerga tasa %15ekoa izango da.

15. artikulua. Zerga sortzea.

Bat. Jokoaren gaineko Zerga jokoa baimendutakoan edo, bidezkoa bada, hori antolatutakoan sortuko da, izaera orokorrean.

Bi. Makinen edo aparatu automatikoen bidezko jokoa izanez gero, behin ustiapena baimendurik eta baimen horren ondorengo urteei dagokienez, urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da zerga.

Baimenaren baja administratiboa urtarilaren 1ean gertatuz gero, zerga ez da sortuko baimen hori berriz eman arte.

Makina baten ordeztu mota bereko eta antzeko baldintzetako makina berri bat jarri gero, aldi berean gertatzen denean, ez da sortuko beste kuota bat.

16. artikulua. Betebehar formalak eta zergaren ordainketa.

Bat. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek zerga horrengatik arauz ezartzen diren aitorpenak aurkezteko obligazioa dute. Aitorpen hori aurkeztean zerga zorra zehaztu beharko dute, eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak kasu bakoitzerako ezartzen dituen toki, modu eta epeetan ordaindu.

Bi. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek Zerga Administrazioari jakinarazi beharko diote edozein gorabehera, hala nola bajak, eten, ezeztapenak, aldi baterako itxidurak, desgaitzeak, komisoak edo antzeko beste kasu batzuk, bai eta subjektu pasiboaren datu pertsonalen aldaketa ere, zergari lotutako jarduerak antolatzeke emandako baimenei dagokienez.

Hiru. Jokoaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek erregistro liburuak eraman beharko dituzte, joko modalitateetarako arauz finkatzen direnean.

Lau. Bitarteko tekniko, telematiko edo interaktiboen bidez parte hartuz gero, bitarteko horietan jaso beharko dira oinarri ezargarria kalkulatzeko zehaztasuna bermatzen duten prozedurak edo kontrol elementuak.

17. artikulua. Zigorrak.

Foru arau honetan erregulatutako Jokoaren gaineko Zergaren zerga urraketen kalifikazioa eta zigorra Zergen Foru Arau Orokorrek jasotakoaren arabera gauzatuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik geratu dira foru arau honetan jasotakoaren aurka doazen xedapen guztiak eta, partikulariki, Zenbait zerga neurri onartzen dituen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren zazpigarren xedapen gehigarria.

Aurreko apartatua jasotakoa jasota ere, indarraldia gordeko du maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarriak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Foru Arauaren arauzko garapena.

Diputatuen Kontseiluari baimena ematen zaio foru arau hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak proposaturik.

Aurreko paragrafoan aipatutako xedapenak onartzen ez diren bitartean, foru arau hau indarrean jartzean indarrean dauden xedapenak aplikaziozkoak izango dira oraindik ere.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituen (2008-07-11ko GAO).*
 - 13. artikulua 9. artikulua aldatu du.

- *Zenbait zerga aldaketa onartzen dituen abenduaren 23ko 5/2010 FORU ARAUA (2010/12/28ko GAO).*
 - 5. artikulua 1 apartatuak artikulua bat gehitu du, 8 bis artikulua.
 - 5. artikulua 2 apartatuak 9. artikulua aldatu du.

- *3/2012 FORU DEKRETU- ARAUA, uztailaren 27koa, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, zerga bereziak eta Jokoaren gaineko Zerga aldatzen dituen (2012/08/13ko GAO).*
 - 4. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 3. artikulua.
 - 7. artikuluko bigarren apartatuko b) letra.
 - 8 bis artikulua.